

BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3426

AGINDUA, 2012ko uztailaren 11koa, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarena, presoak laneratzeko tailerretarako diru-laguntzak emateko deialdia egiten duena.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, bere 10.14 artikuluan, eskumen eskusiboa ezarri zuen espetxeetako erakundeen antolaketa, araubide, funtzionamendu zein gizarteratze gaietan. Bere 12.1 artikuluan zigor eta espetxe legeria betearazteko eskumena ezarri zuen. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzak eskumen hori bereganatzea eskatu du, baina oraingoz ez dute eskumena transferitu.

Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organiko eta funtzionala finkatzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren arabera, Justizia Zuzendaritzari dagokio zigor-eta espetxe-legeria betearaztea, Jaurlaritzak eremu horietan dituen gainerako jardurekin koordinatuta.

Egiteko horiek burutu ahal izateko, Justizia Zuzendaritzak, inposatutako mugen barruan, Europako Parlamentuak, Europar Batasuneko kartzeletako egoerari buruzko 1998ko abenduaren 17ko Ebazpenean eman zituen gomendioak betetzeko asmoa du. Ebazpen horrek, Europar Batasuneko estatu kideak, Europako Kontseiluaren espetxe-arauei buruzko xedapen guztiak aplikatzera premiatzen zituen.

Beraz, Justizia Zuzendaritzak espetxeetako zerbitzuak eta berrezteko eta gizarteratzeko programak hobetzea izango du funtsezko helburu, beti ere, legediaren eta hitzarmenaren esparruan. Horretarako, nazioarteko testuetan eta Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikuluan barne hartuta dagoen gizarteratze-printzipioaren eraginkortasuna lortzeko gizarteratzea eta laneratzeari bultzatu behar da.

Aurrekoa kontuan harturik, 2011ko urriaren 11n, Barne Ministerioak, Espetxeetako Idazkaritza Nagusiaren bitartez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren bitartez, lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horren bidez, martxan jarriko dira Euskal Autonomia Erkidegoan preso diren pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesu integralak. Diru-laguntzak emateko deialdi hau, hain zuzen ere, hitzarmen horretan kokatzen da.

Aurten deialdiaren ardatza presoak lanbideratzea izango da, gizarteratzeko funtsezkotzat jotzen baitugu presoak laneratzeari. Horrela, baliabideak modu eraginkorragoan kudeatuko ditugu eta EAEko hiru espetxeetako Zuzendaritzaren eta Justizia Zuzendaritzaren lan komunean oinarrituko dugu helburu hura.

Xede horrekin, eta administrazio-ebazpenaren objektibotasuna ziurtatzeko, eskaerak baloratzeko irizpideak zehatz-mehatz ezarri dira agindu honetan.

Honen indarrez,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak, 2012ko ekitaldirako, EAEko presoak laneratzeko tailerrak egiteko emango dituen diru-laguntzak arautzen da. Diru-hornidura 200.000 eurokoa izango da.

2. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen ekintzak eta epea.

1.– Hurrengo baldintzak betetzen dituzten presoak laneratzeko tailerrek jaso ditzakete diru-laguntza:

a) Programak espetxeko zuzendaritzek onartu behar dute. Izan ere, tailerretara joateko, lehenengo urratsa presoekin egingo diren elkarrizketa izango da.

b) Lanbideratzeko programa aurkezten duen erakundeak presoentzako plazak hiru lurralde historikoetan eskaini beharko ditu, erakundea berak soilik edota beste erakundeekin bat eginez edo elkartuta.

c) Eskabidean argi eta garbi arrazoitu beharko da, alde batetik, zer ekarpen egingo dion programa horrek zigortuentzako eta presoentzako gizarteratze eta laneratzeko prozesuari; eta bestetik, zenbat preso izango diren onuradun 2012an.

d) Programan zehaztuko den metodologia erabateko laguntzarena izango da.

2.– Epea:

Lanbideratzeko tailerrak 2012an burutu behar dira.

3. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak eta gehienezko diru-laguntza eskaera.

1.– Diru-laguntza bakar-bakarrik emango da, diru-laguntza jaso dezaketen programa edo ekintzekin zuzen-zuzenean lotuta dauden eta beharrezkoak diren gastuentzat. Gastuok, 2012an egin beharko dira (2012ko ordainagiri edo baliokideak).

Justizia Zuzendaritzak, Helduen Justizia Zerbitzuaren bitartez, eskabideak aztertu eta baloratzeko unean, erabakiko du programa egiteko gastuen beharra eta baita gastuok diru-laguntza egitasmoarekin erlazio zuzena duten ere.

2.– Gehienezko diru-laguntza eskaera 100.000 eurokoa izango da.

4. artikulua.– Diru-laguntzak emateko prozedura.

Agindu honetan ezartzen diren diru-laguntzak emateko 12. artikuluan arautzen den norgehiagoka bidezko prozedura erabiliko da. Diru-laguntza, artikuluko horrek zehazten dituen kopuruetan, deialdiko baldintzak betetzen dituzten eta gutxienez, 11. artikuluko balorazio irizpideak aplikatuta, 30 puntu lortzen dituzten eskabideek eskuratuko dute.

5. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Legez eraturiko irabazi-asmorik gabeko erakundeak izan daitezke diru-laguntza hauen onuradun, baldin eta zerga-egoitza eta helbidea EAEn badute eta deialdi honetan ezarritako gainontzeko baldintzak betetzen badituzte.

Hurrengo erakunde eskatzaileek ezin dute deialdian parte hartu: diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarten zigor zein administrazio arloko zehapenen bat jaso duten erakundeak, ezta horretarako desgaitzen duen legezko debekuren baten pean daudenak, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin bat etorritik.

Halaber, erakunde onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak (eta bere erakunde autonomoek) emandako izaera berdineko diru-laguntzen esparruan, diru-itzultze edo zehapen-prozeduraren batean sartuta badago, diru-laguntza eman eta ordaintzeko, derrigorrezkoa da aurrez oraindik ere izapidetzen ari diren prozedura horiek amaitzea.

Erakunde eskatzailea, egunean egon beharko du tributuekiko eta Gizarte Segurantzarekiko indarrean dauden xedapenek ezartzen duten betebeharretan.

6. artikulua.– Eskabideak aurkeztea. Aurkezteko era eta epea.

Deialdian parte hartu nahi duten erakundeek, eskabideak (I. eranskineko eredia erabiliz), hilabeteko epean aurkeztu beharko dute, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Eskaerok Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Justizia Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) aurkeztu ahal izango dute edo aipatu zuzendaritzara bidali Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko (azaroaren 26ko 30/1992 Legea) 38.4 artikuluan onartutako edozein bide erabiliz.

Eskabidea eta gehigarriak URL honetan daude erabiltzeko gai: http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-izapidea/eu/contenidos/informacion/jusap072_tramites/eu_0002/online.html

7. artikulua.– Erakunde eskatzailearen betebeharren akreditazioa.

Justizia Zuzendaritzak, Helduen Justizia Zerbitzuaren bitartez, automatikoko egiaztatu ahal izango du, behar-beharrezko duen bakoitzean eta baimenik eskatu gabe, erakunde eskatzailea egunean dagoela tributuekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan, horrela ahalbidetzen baitio, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.3 artikulua. Zergak Nafarroako Ogasunean ordainduz gero, interesdunek ziurtagiria aurkeztu beharko dute tributuekiko betebeharretan egunean daudela bermatuz.

8. artikulua.– Agiriak.

1.– Eskabidearekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Erakundeari buruzkoak:

- Hirugarren alta dokumentua (eredua hurrengo helbidean: http://www.euskadi.net/r33-2288/eu/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/hirugarrenaren_alta.html), bi orri jatorrizko (banketxearen datuei buruzkoak), eskatzaileak eta banku-entitateak behar bezala izenpetu eta zigilatua.

- Pertsona horrek duen ordezkartzaren egiaztagiria (ahalordetze eskritura publikoa edo dagokion organoaren izendatzea).

- Entitatearen organo eskudunaren ziurtagiria, sinatzaileak haren izenean aritzeko gaitasuna duela kreditatuz.

- Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia bat.

- Eratze Aktaren fotokopia.
- Entitatearen Estatutuen fotokopia.
- Dagokion erregistroko izen-emate agiria.
- Aurreko sei puntuetan eskatutako dokumentazioaren ordezeko adierazpena. Adierazpen horretan eskatzaileak azaldu behar du agiri horiek guztiak Administrazioak dituela zigortuentzako eta presoeentzako gizarteratze eta laneratze programetarako aurreko deialdietan aurkeztu zelako; agiriak indarrean jarraitzen dutela, eta haien edukia ez dela aldatu.
- 2011ko gastu eta diru-sarreraren laburpena, beste edozein erakunde publiko zein pribatuk emandako diru-laguntzak berariaz aipatuta.

b) Diru-laguntza eskatu den proiektuaren memoria memoria, II. eranskinean agertzen den eredia erabiliz.

c) Proiektua betetzeko beharko den gastuaren aurrekontu zehatza, diru-atalka bereizturik III. eranskinean agertzen den eredia erabiliz. Proiekturako beste finantzabiderik egonez gero, horien xehetasunak azaldu beharko dira edo, bestela, zinpeko adierazpena, proiektua finantzatzeko ez dutela beste baliabiderik, ez bereak ezta besteren batenak ere, azalduz.

d) Diru-laguntza hauen xede berbera duten ekintzetarako eskatu diren beste diru-laguntzen zerrenda (IV. eranskina). Horretan aipatu beharko da eskaera egin zaion administrazio edo erakunde publiko edo pribatua, eskabidearen nondik norakoak zehaztuz (onartu diren ala ez, erabakitzeke dauden edota onartu diren eta zenbatekoak). Ordea, diru-laguntzarik aurkeztu ez badu, zinpeko adierazpena aurkeztu beharko du hori egiaztatzeko.

2.– Orobat, proiektua edo jarduera hobeto baloratzeko, erakunde eskatzaileek bestelako dokumentazioa aurkeztu ahal izango dute.

3.– Jarduerak dagoeneko gauzatu badira, egindako gastuak justifikatzen dituzten agiri guztiak aurkeztu beharko dira, agindu honetan xedatutakoaren arabera.

4.– Justizia Zuzendaritzak, Helduen Justizia Zerbitzuaren bitartez, espedientea osatzeko beharrezko jotzen dituen agiri eta argibide guztiak eska diezazkioke erakunde eskatzaileari; eta, egoki baderitzo, eskatzaileak aurkeztutako datuak egiaztatu egingo ditu.

9. artikulua.– Eskabidea zuzentzea.

Eskatzaileek aurkeztutako agiriak ikusita, Justizia Zuzendaritzak, Helduen Justizia Zerbitzuaren bitartez, agiriren bat edo daturen bat falta dela ikusten badu, gehienez ere 10 eguneko epea emango die aurkitutako akatsak zuzentzeko. Eskatzaileak, epe horretan, eskaturiko guztia aurkezten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko da. Horretarako, aldeztu aurreko ebazpena eman beharko da, 42. artikuluan aurreikusitakoaren ildotik, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan ezarritakoaren arabera.

10. artikulua.– Eskabideak baloratzea.

1.– Diru-laguntza emateko proposamena hurrengo kideek osatzen duten Balorazio Batzordeak egingo du:

Presidentzia:

- Justizia zuzendaria. Presidenteak boto ebazlea izango du.

Batzordekideak:

- Araba espetxeko zuzendaria.
- Basauriko espetxeko zuzendaria.
- Martuteneko espetxeko zuzendaria.

2.– Justizia zuzendariak Helduen Justizia Zerbitzuko pertsona bat izendatuko du idazkari lanetan aritzeko.

11. artikulua.– Balorazio irizpideak.

1.– Diru-laguntzak emateko eta horien zenbatekoa zehazteko, eskabide bakoitzeko, kontuan hartuko dira ondorengo baldintzak bete diren. Balorazioa eskabidean adierazitako datuen arabera egingo da, kasu bakoitzean, zehazten den puntuazio-eskala kontuan izanik:

1.1.– Erakunde eskatzaileari dagokionez:

Erakunde eskatzaileak, proposatutako jarduera edo programa garatu behar den esparruan duen konpromisoa, ibilbidea, egonkortasuna eta kaudimena. Otik 10 puntura.

1.2.– Proposatutako jarduera edo programari dagokionez:

a) Programarekin onura lortzen duen preso kopurua, programa originala izatea eta bere egokitasuna edo gizartean eduki dezakeen eragina. Otik 20 puntura.

b) Prestakuntza-eskaintzaren aniztasuna. Kontuan hartuko dira, besteak beste: lan aurreko prestakuntza, lanerako prestakuntza, arautua, arautu gabea, Lanbideko ikastaroak eta enpresetan egin diren praktikak. Otik 20 puntura.

c) Proiektuaren hurrengo urteetarako bideragarritasuna. Otik 10 puntura.

d) Erakundeak presoen esku-hartze sozialean diharduten bestelako antolakundeekin eta Lanbide zerbitzuarekin, proposatzen diren jardueretan duen parte hartzea eta lankidetzeta-maila. Otik 10 puntura.

e) Proiektuaren beste finantziazio-iturri batzuk eta autofinantzazioa lortzea. Otik 5 puntura.

f) Boluntarioen parte hartzea jarduera edo programan. Otik 5 puntura.

2.– Balorazio irizpideak aplikatuta lor daitekeen puntuaziorik altuena 60 puntukoa da.

Diru-laguntzak emateko, lehen esandako irizpideak kontuan hartuta, beharrezkoa izango da eskabideak gutxienez 30 puntu lortzea.

12. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztea.

1.– Diru-laguntzen zenbatekoak zehazte aurretik, eskatutako zenbatekoa egokituko ahal izango da, eskabideetan diru-laguntzarik jaso ezin duten gastuak edo proiektuarekin zerikusi zuzena ez duten gastuak sartu badira.

2.– Behin aurrekoa aplikatuta, balorazio irizpideetan 30 puntu baino gehiago lortu dituzten eskaeren zenbatekoa honela zehaztuko da:

– Eskaerak lortutako puntuen arabera sailkatuko dira, puntu gehien lortu duenetik hasita. Behin balorazio irizpideak aplikatuta, 60 puntu lortu dituen eskaerari (gehienezkoa) diru-laguntza

portzentaje teorikoa aplikatuko zaio, hau da, eskatutakoaren % 100a. Gainontzeko eskaerei balorazio irizpideetan lortutako puntuen arabera portzentaje proportzionala aplikatuko zaie hurrenez hurren.

– Diru-laguntza teoriko guztiak gehitu ondoren, diru-laguntza mota bakoitzaren aurrekontuen diru-hornidura gainditzen bada, diru-laguntza guztiak proportzionalki egokituko dira diru-laguntza mota bakoitzean, diru-laguntza teoriko guztiei portzentaje berbera murriztuz. Portzentaje hori honela kalkulatu da: diru-laguntza mota bakoitzaren diru-hornidura zenbateko teoriko guztiarekin zatituz.

– Alderantziz, diru-laguntza teoriko guztiak gehitu ondoren, diru-laguntza mota bakoitzaren aurrekontuen diru-hornidura gainditzen ez bada, soberakoa balorazio irizpideetan 30 puntu baino gehiago lortu dituzten eskaera guztien artean proportzionalki banatuko da. Horretarako aurreko paragrafoan ezartzen den prozedura bera jarraituko da. Hala ere, kalkulatuak kopuruak ezingo du inondik inora ere diruz lagun daitekeen gastuaren % 100a gainditu.

Edozelan ere, proiektu bakoitzari eman ahal zaion diru-laguntza gehienez 100.000 eurokoa izango da.

3.– Emandako diru-laguntzaren zenbateko osotik, gehienez % 10a administrazio eta funtzionamendu gastuak ordaintzeko erabili ahal izango da. Soldatak salbuetsi egingo dira, salbu eta programa gauzatzeko funtsezkoak badira eta horrela jasota baldin badago azalpen-memorian.

4.– Diru-laguntzak ez dira emango ezta ordainduko ere baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak emandako izaera bereko diru-laguntzen arloan, dirua itzultzeko prozedura edo zigor-prozedura bat hasita baldin badago eta oraindik izapidetzen ari bada.

13. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, errekurtsoak, ebazteko epea eta publizitatearen prozedura.

1.– Justizia Zuzendaritzari dagokio, Helduen Justizia Zerbitzuaren bitartez, deialdi honen kudeatze-lanak egitea.

2.– Justizia zuzendariak, Balorazio Batzordearen proposamena ikusirik, diru-laguntzak eman edo ukatuko ditu, horretarako berriazko ebazpena emango duelarik. Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen eta, beraz, bere aurka interesatuek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Justizia Sailburuordeari, azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

3.– Agindu honen babesean aurkeztutako eskabideak ebazteko eta jakinarazteko epea lau hilabetekoa izango da, agindua indarrean jartzen denetik hasita. Epe horretan ebazpen adierazirik eman eta jakinarazi ez bada, eskabideak ukatu egin direla ulertu beharko da, azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako. Hori gorabehera, administrazioak modu adieraziz ebazteko obligazioa du.

4.– Ebazpenak modu adieraziz eta banan-banan jakinarazi diren arren, publikotasun-printzipioa betetzeko, agindu honen arabera emandako diru-laguntzak jasoko dituzten entitateen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Justizia Zuzendariaren ebazpen baten bitartez. Argitalpen horretan, jasotako zenbatekoak zehaztu beharko dira batetik, eta, bestetik, zenbatekoa aldatu zaien diru-laguntzak.

14. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Erakunde onuradunek diru-laguntza onartzeak, agindu honetan finkatutako arau guztiak onartzen dituela esan nahi du. Era berean, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan nahiz dekretu hori ordezkia dezan arauan, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan finkatutako harreman-bermeak eta itzultze-araubidea ere onartzen dituztela esan nahi du.

2.– Diru-laguntza onartu egin dela ulertuko da, diru-laguntza onartzen duen ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita 5 eguneko epean onuradunak bestelakorik adierazten ez badu.

3.– Onuradunen betebeharrak hauek izango dira:

a) Justifikatu beharko dio dirulaguntza eman dion administrazioari, diru-laguntza emateak daramatzan eskakizun eta baldintzak betetzen dituela, bai eta diruz lagundutako proiektua bete egin dela ere. Era berean, proiektua, zati batean edo oso-osorik betetzea ezinezko egiten duten gorabeheren berri eman beharko du.

b) Emandako diru-laguntza onartu zaion proiektua burutzeko erabili beharko du, salbu eta agindu honetako 17.1.b) artikuluan aurreikusitakoa aplikagarri gertatzen bada.

c) Administrazioari jakinarazi beharko dio, proiektua burutzeko epean, eta horren berri duen momentuan, proiektu hori finantzatzeko beste edozein diru-laguntzarik edo bestelako laguntzarik eman edo ukatu dioten.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, diru-laguntzen erabilera ikuskatzeko lanean, eskatzen dituzten argibideei buruzko informazioa eman beharko die.

e) Diru-laguntza eman eta onartzen denetik, Justizia eta Administrazio Sailarekin duten lankidetzari buruzko berriazko aipamen argia egin beharko dute argitara ematen duten iragarki, programen ale, kartel iragarle, argazki eta gainontzeko material idatzi edo entzunezkoetan. Aurrekoa betetzeko Eusko Jaurlaritzaren Erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 dekretua aplikatuko da.

Argibide zein eskaerak egiteko web orri honetara jo daiteke: www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-2312/es/contenidos/informacion/identidad_corporativa/

15. artikulua.– Ordaintzea.

1.– Laguntza ematearen aldeko ebazpena jakinarazten denean, diru-laguntzaren % 75a ordainduko da portzentaje horri dagozkion legezko frogagiriak aurkeztu ondoren. Gainontzeko % 25a, berriz, 16. artikuluan jasotako agiriak Justizia Zuzendaritzan aurkeztu ondoren ordainduko da, ekintza amaitzen denetik hasi eta bi hilabeteko epean.

2.– Dena den, aurreko paragrafoan agindutakoa gorabehera, laguntza ematearen aldeko ebazpena argitaratu baino lehen amaituta dauden jardueri dagozkien diru-laguntzak osorik eman daitezke, ordainketa bakarraren bidez, baldin eta, eskabidearekin batera, aurreko lerroaldean adierazitako justifikatzeko agiriak aurkezten badira.

3.– Diru-laguntza onartzen duen ebazpena emanaz gero, ordainketak egin ahal izateko, behar-beharrezkoa da erakundeak Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan altan emanda egon beharko dira. Eredua hurrengo URLan dago: http://www.euskadi.net/r33-2288/eu/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/hirugarrenaren_alta.html

16. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea.

1.– Diru-laguntza justifikatzeko ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Justifikazioak bi alde izango ditu:

1.1.– Justifikazio materiala: justifikatzeko memoria (ez da diru-laguntza eskabidearekin batera aurkeztu behar den proiektuaren memoria):

Erakunde onuradunek diru-laguntza jaso duen ekintza edo programaren memoria aurkeztu behar dute. Horren bitartez diru-laguntza jaso duen ekintza egin den eta helburua bete den egiaztatuko da. Halaber, diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak bete diren ere egiaztatuko da.

Aipatu memoriak eraketa librea izango du, ekintza edo programa zehaztuko ditu eta posible denean hauek hartuko ditu barne: diru-laguntza jaso duen ekintza egin den kreditatzen dituen argazki eta dokumentu grafikoak, eta, dagokionean, ekintzaren egitarauak, kartelak, iragarkiak eta argitaratutako gainontzeko material grafikoak, soinudunak edota idatziak.

Halaber, justifikazio materiala egiaztatzeko Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzuko langileek, diru-laguntza jaso dituzten proiektuak bisitatu ahal izango dituzte, baldin eta erakunde onuradunarekin aurrez geratu badira.

1.2.– Justifikazio ekonomikoa: justifikatzeko kontua:

Justifikatzeko kontua (memoria ekonomikoa), V. eranskineko eredia jarraituz, erakunde onuraduneari ahalmen nahikoa duen pertsonak sinatuko du eta data jarriko dio. Agiri horrek honako alderdi hauek jaso behar ditu gutxienez:

a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, honako informazio hau jasoko duena: hartzekodunaren eta dokumentuaren datuak, zenbatekoa, igorpen data eta ordainketa data. Gastu bakoitza zein helbururekin egin den azaldu behar da ere. Era berean, argi agertu behar da zeintzuk diren emandako diru-laguntzari dagozkion gastuak. Gastu horiek diru-laguntzaren zenbatekoaren beste izan behar dira.

b) Diru-laguntza jaso duen ekintza berbera finantzatzeko jaso diren bestelako diru-laguntza edo finantzazio iturrien aipamena, baldin eta aurrez horien berri ez baldin bada jakinarazi.

c) Emandako diru-laguntzaren kargura egindako gastu guztien ordainagiriak.

Gastuak justifikatzeko, jatorrizko faktura eta ordain-agiriak erabiliko dira. Nolanahi ere, laguntzaren onuradun den pertsona fisikoak edo juridikoak, jatorrizko agiriak Administrazioaren esku uztea ezinezkoa duela behar bezala egiaztatzen badu, posible izango da lehendabizi jatorrizko dokumentuak zein kopiak aurkeztea eta kopiak konpultsatu ondoren jatorrizko dokumentuak berriro bueltatzea diru-laguntzaren onuradunari.

Fakturak eta ordain-agiriak proiektuen arabera sailkatuta aurkeztu behar dira, behar bezala ordenatuta eta zenbakituta. Horiei zerrenda nominala atxikiko zaizkie eta horietan agertzen den gastua zein helbururekin egin den azaldu beharko da.

Lan-legepeko langile kontratatuei dagozkien gastuak egiaztatzeko, eredu ofizialaren arabeko nominen egiaztagirien jatorrizko aleak aurkeztu beharko dira. Nominekin batera, Gizarte Segurantzako kotizazio-agiriak aurkeztu beharko dira.

Aldi baterako lankidetzen partiden ordain-agirietan, besteak beste, hurrengo datuak agertu beharko dira: langilearen datuak, bere NANA, ordaintzen den jardun-mota eta PFEZrekiko atxikipena.

17. artikulua.– Diru-laguntza emateko betekizunak ez betetzea.

1.– Ondorengoak ez-betetze kasuak izango dira:

a) Jasotako diru-laguntza, osorik edo zati batean, onartutako proiektuari ez dagokion bestelako ekintzetarako erabiltzea.

b) Diru-laguntza jaso duen proiektuan aldaketak egitea, salbu eta aldaketok funtsezkoak ez badira eta Justizia zuzendariak, aurrez eskaera arrazoitua egin ondoren, aldaketok berariaz onartzen baditu.

c) Aurkeztutako eskabideetan edo agirietan datu faltsuak ematea.

2.– Diru-laguntzaren onuradunak diru-laguntza emateko Ebazpenean edo Agindu honetan finkatutako baldintzaren bat bete gabe uzten badu, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko du, eta, behar izanez gero, jasotako diru-zenbatekoa eta legez dagozkion korrituak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra ezarriko zaio, baita beharrezko zigorrek ere; hori guztia abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan nahiz bera ordezkatzeko duen arauan eta azaroaren 11ko 1997 Legegintzako Dekretuan (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen du) jasotakoarekin bat etorritz.

18. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Agindu honen babesaren pean ematen diren diru-laguntzak eta bestelako administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuetatik datozen diru-laguntzak bateragarriak izango dira. Baina, helburu berbererako eskuratutako diru-laguntzen zenbateko guztia aurrekontua baino handiagoa bada, agindu honen bidez emandako diru-laguntzaren zenbatekoari gehiegizko zenbatekoa kenduko zaio.

19. artikulua.– Argitaratzea.

1.– Justizia eta Herri Administrazio Sailak eskubidea izango du agindu honetako diru-laguntza jasotzen duten ikerketa eta azterlanak edozein euskarritan argitaratzeko, aurkezten direnetik urtebeteko epean. Horretarako, aldeztu aurretik interesdunak onartu beharko du.

2.– Lanak argitaratuz gero, lehenengo argitalpenaren eskubideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bereganatuko ditu, eta horretarako erakunde onuradunak eskualdatzea doan onartuko duela hitz eman beharko du.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.–Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, beraren aurka, interesatuek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Justizia eta Herri Administrazio sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAeko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hileko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Prozeduraren gainean agindu honetan arautu ez diren gaiei dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean agindutakora joko da.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailearen 11.

Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

2012ko uztailaren 24a, asteartea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Justizia ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Dirección de Justicia

I. ERANSKINA - ESKABIDEA

Izartxoak (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA *

1

 Titularra Ordezkarria

DATU PERTSONALAK

TITULARRA

Erakundearen izendapena *

Dokumentu-mota *

Tel. finkoa

Tel. mugikorra

Zenbakia *

 -

ORDEZKARIA

Izena / Erakundearen izendapena *

Dokumentu-mota *

Lehen abizena

Bigarren abizena

Zenbakia *

 -

Tel. finkoa

Tel. mugikorra

Sexua

Gizona

Emakumea

JAKINARAZPENA *

2

 Elektronikoa Posta bidez

HELBURU POSTALETARAKO (Posta bidezko jakinarazpenetarako soilik)

Herrialdea *

Helbidea *

Zk

Pisua

Letra

PK *

Udalerria *

Lurraldea *

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOETARAKO

3

Posta elektronikoa (puntu eta koma [;] bitartez bereiziak)

Mugikorraren telefono zenbakia (puntu eta koma [;] bitartez bereiziak)

JAKINARAZPENAK ETA OHARRAK JASOTZEKO HIZKUNTZA * Euskara Gaztelania**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK****BATERAGARRITASUN-ADIERAZPENAK**

- Erakunde eskatzailea ez dago laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Erakunde eskatzaileak Administrazio Publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza bat eskatu dio eta eman diote (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)
- Erakunde eskatzaileak Administrazio Publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza bat eskatu dio eta oraindik erantzunaren zain dago (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

ERREGISTROKO INSKRIPZIO ADIERAZPENAK

Erakunde eskatzailea Euskal Herriko dagokion erregistroan erregistratuta eta legalki osatuta dago.: *

_____ datan *

BESTELAKO ADIERAZPENAK

- Erakunde eskatzailea ez dago sartuta gisa bereko diru-laguntza bat itzultzeko edo hargatik zehapena ezartzeko prozedura batean, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta beraren erakunde autonomoek ematen dituzten laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozedura batean.

Erakunde eskatzailea diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor edo administrazio-arloko zigorrik ez dauka, eta ez dago laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen duen lege-debekuen eraginpean, beren beregi Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatiko lege-debekuen eraginpean.

Eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak dira.

Erakunde eskatzaileak laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen ditu.

ADOSTASUNAK**Ordez kariaren nortasun-datuak**

- Baimena ematen diot deialdi hau kudeatzen duen atalari, dagokion administrazioan baliabide elektroniko bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez datuok egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko.

Hirugarrenen alta

- Baimena ematen diot deialdi hau kudeatzen duen atalari, dagokion administrazioan baliabide elektroniko bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez datuok egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko.

DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzaren **Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Justizia Zuzendaritzak** jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak Eusko Jaurlaritzaren **"INTERVENCIÓN CON PERSONAS PENADAS"** fitxategian sartu direla. Eusko Jaurlaritzaren **Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Justizia Zuzendaritza** da fitxategi horren titularra eta **2010ko otsailaren 15eko AGINDUAN** araututa dago. Fitxategiak laguntza emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari eman zaio horren berri, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita ditu. Fitxategiaren datuak, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauetara jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berriaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren **Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Justizia Zuzendaritza** jotzea (Donostia kalea 1, 01010, Gasteiz).

Administrazio Publikoak erkatu ahal izango ditu adierazitako datuak eta berriazko egiaztapenak egin ahal izango ditu laguntzak behar bezala esleitzeko.

_____ (e)n _____ (e)an

(Ordezkararen sinadura)

ESKABIDEAREN ARGIBIDEAK

1 ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA

Pertsona juridikoek, beti jokatzen dute ordezkari baten bitartez. Beraz, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkaria" aukeratu behar du, eta "DATU PERTSONALAK" atalean, erakundearen datuak idatzi "Titularra" idazpuruan, eta erakundearen ordezkariaren datuak "Ordezkaria" idazpuruan. Eskabidea ordezkariak sinatuko du.

2 JAKINARAZPENA

Eskatzaileak jakinarazpenak zein kanaletik jaso nahi dituen aukera dezake: posta bidez edo elektronikoa.

POSTA BIDEZ: "HELBURU POSTALETARAKO" atalean adierazitako helbidera igorriko zaizkio jakinarazpenak

ELEKTRONIKOA: eskatzaileak jakinarazpenak www.euskadi.net/nirekudeaketak -eko "Nire gestioak" ataleko sarrera ontzian jasotzen ditu. "Nire gestioak" atalean sartzeko beharrezkoa izango da eskatzaileak indarrean dagoen ziurtagiri elektronikoa bat izatea (ONA, Dnie, Herritar Ziurtagiria, Erakunde Ziurtagiria, FNMT...)

3 JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOETARAKO

Eskatzaileak jakinarazpen elektronikoa jasotzea erabaki badu, administrazioak posta elektronikoa edo mugikor bidezko zerbitzu bat jartzen du zure eskura, jakinarazpen bat bidaltzen dizun bakoitzean zu ohartarazteko.

Nahi dituzun posta elektronikoa edota mugikor zenbaki idatz ditzakezu, kasu bietan datu bakoitza puntu eta koma (;) bitartez bereiziz.



II. ERANSKINA - PROIEKTUAREN MEMORIA (Eskabidearekin batera aurkezteko. 5 orrialde baino ez.)

Proiektuaren izena: _____

(Izen hori jakinarazpen guztietan erabiliko da)

Erakunde eskatzailearen xedeak:

Proiektuaren helburuak:

- Orokorra
- Bereziak
- Metodologia

2012ko erabiltzaile kopurua: (espetxeratu edo zigortutakoak) _____

Programaren eragina presoak eta zigortuak gizarteratzeko eta laneratzeko. Arrazoiak:

Lurralde eremua: _____

Noiz burutuko den: _____

Giza baliabideak: _____

Bitarteko materialak: _____

Bitarteko ekonomikoak: _____

2012ko uztailaren 24a, asteartea

BALORAZIO IRIZPIDEEN GAINEKO AIPAMENA
(Irizpide bakoitzean proiektuak duen eragina aipatu behar da)

Erakunde eskatzaileari dagokionez: Proposatutako jarduera edo programa garatu behar den eremuan, entitate eskatzaileak duen konpromiso, egindako lan-ibilbidea, egonkortasun eta kaudimena.

Programaren preso eta zigortu onuradunen kopurua, originala izatea garatuko den lekuan eta bere egokitasuna edo gizartean eduki dezakeen eragina.

Lanbideratzeko eskaitzaren aniztasuna. Kontuan hartuko dira besteak beste: lan aurreko prestakuntza, lanerako prestakuntza, arautua, aratu gabea, Lanbideko ikastaroak eta praktikak enpresetan.


Proiektuaren hurrengo urteetarako bideragarritasuna.

Erakundeak presoen esku-hartze sozialean diharduten bestelako antolakundeekin eta Lanbide zerbitzuarekin batera proposatzen diren jardueretan parte hartzea eta lankidetzeta-maila.

Proiektuaren beste finantziazio-iturri batzuk eta autofinantzazioa lortzea.

Boluntarioen parte hartzea jarduera edo programan.

_____ (e)n _____ (e)an
(Ordez kariaren sinadura)



III. ERANSKINA - PROIEKTUAREN AURREKONTUA GUZTIRA

GASTUAK

Gastuak	Zenbatekoa
Langile-gastuak	
Funtzionamendu-gastuak	
Bestelako gastuak	
Guztira	

2012ko uztailaren 24a, asteartea

DIRU-SARRERAK

Diru-sarrerak	Zenbatekoa
Eskatzailearen ekarpena	
Erakunde publikoen ekarpenak	
Entitate pribatuen ekarpenak	
Bestelako diru-sarrerak	
Guztira	

ESKATUTAKO BESTE DIRU-LAGUNTZAK

Eman duen entitatea	Eskatutako zenbatekoa	Egoera	Emandako zenbatekoa
Guztira			

_____ (e)n _____ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)



IV. ERANSKINA - BESTE FINANTZIAZIO ITURRIAK

ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA

Proiektuaren izena: _____

(Jakinarazpenetan erabiliko da)

Eskatzen den zenbatekoa: _____

BESTE FINANTZIAZIO ITURRIAK

Beste diru-laguntzaren bat eskatu edo jaso al duzu helburu eta xede berdinarekin?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Erakunde pribatuen ekarpenak	Eskatutako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa
Guztira		


Erakunde publikoen ekarpenak	Eskatutako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa
Guztira		

Bestelako diru-laguntzak guztira		
---	--	--

_____ (e)n _____ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

2012ko uztailaren 24a, asteartea

**V. ERANSKINA - JUSTIFIKATZEKO KONTUA ***

(* Diru-laguntza jaso duen ekintza egin ostean eta justifikatzeko epean aurkezteko. Agiri honekin batera jatorrizko frogagiriak ere aurkeztu behar dira, hain zuzen ere 16.1.2 artikuluan ezartzen den eran).

Gastu mota	Hartzekoduna	Ordainagiriaren zenbakia	Helburuaren azalpena	Zenbatekoa	Zenbatekoa taldeka
Guztira					

ESKATUTAKO BESTE DIRU-LAGUNTZAK JUSTIFIKAZIOA EGITEN DEN UNEAN
(Bete behar da solik aldaketak egon badira)

Eman duen entitatea	Eskatutako zenbatekoa	Egoera	Emandako zenbatekoa
Guztira		Guztira	

_____ (e)n _____ (e)an

Erakundearen ordezkari legala edo boterea duenaren sinadura eta erakunde onuradunaren zigilua